

2003/2/3ko **Prentsa-oharra****IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO JARDUEREN INGURUKO ESTATÍSTIKA (I+G)****2001. urtea**


GIPUZKOAKO BPG-REKIKO I+GKO GASTUAK (%1,54) BIZKAIKOA (%1,49) ETA ARABAKOA (%1,40) GAINDITU DITU 2001. URTEAN

Enpresetan I+Gra bideratutako baliabideen finantzaketa pribatua EEBB, Suitza eta Suedia moduko herrialdeen mailan kokatzen da hiru herrialdeetan.

2001. urtean Euskal AEn 619 milioi euro gastatu ziren Ikerketa zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan. Gastu honetatik, 311 milioi (%50,2) Bizkaiari dagozkio, 213 (%34,4) Gipuzkoari eta 95 (%15,5) Arabari, Eustatek lehenengo aldiz eman dituen lurraldekako datuen arabera. Hala ere, I+G gastua Lurralde Historiko bakoitzeko BPGrekin alderatuz gero, nabarmentzekoa da Gipuzkoak egindako esfortzua %1,54 bideratu baitu; ondoren, Bizkaiak %1,49 eta Arabak %1,40 jarri dute.

BPGrekiko I+Gko %1,5eko gastua da muga, ikerketan esfortzu esanguratsua egiten dutenen eta inbertsio txikiak egiten dituztenen artean; beraz, Bizkaia eta Gipuzkoa Alemania, Frantzia, Danimarka, Erresuma Batua, Norvegia, Austria, Islandia eta Kanada moduko herrialdeen mailan kokatzen dira.

I+GKO GASTUA. 2001.



Iturria: EUSTAT

Egitaritze-sektoreari dagokionez, Lurralde Historiko bakoitzak berezitasunak agertzen ditu. Araban, administrazio publikoko sektorearen gastuaren pisua oso garrantzitsua da, administrazioaren meneko erakunde asko kontzentratzen baitira bertan; enpresen pisua txikiagoa da eta unibertsitatearena eskasa.

Gipuzkoan, aldiz, gastu txikiena duen sektorea administrazioa da, baina enpresen sektoreak nabarmen egiten du gora, bere enpresa-ehundura espezifikoaren ondorioz, eta maila altua du unibertsitate-sektoreak ere, teknologia-fakultateen proportzio handiaren eraginez.

Bizkaian altua da gastua sektore guztietan, baina unibertsitate-sektorea nabarmentzen da, batez ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fakultateak Leioako kanpusean kontzentratuta daudelako.

Gasturik handiena eta pertsonal gehien duen diziplina zientifikoa ingeniariaritz eta teknologia da herrialde guztietan. Ekarpenik handiena Gipuzkoak egiten du eta I+Gra bideratutako guztizko gastuaren %85,2ra iristen da. Bigarren Araba dago, %82rekin eta Bizkaian I+Gra bideratutako gastuaren %74,5 bideratzen da diziplina honetara.

Gastuaren izaeraren ikuspuntutik, Euskal AEn egindako 78 milioiko kapital-gastuaren %46 Gipuzkoari dagokio, bereziki enpresa eta unibertsitateetan; Bizkaia %40 eta Arabari %14.

Finantzaketa pribatuaren garrantziak (%66), estatuko batez bestekoaren gainetik (%47,2) kokatzen ditu hiru herrialdeak, EEBB, Suitza eta Suediaren parean, enpresek ikerketara bideratutako baliabideei dagokionean.

Emakumeek I+G jardueretan duen parte hartzeari dagokionez, Araba eta Bizkaiko pertsonal guztiaren %29 emakumezkoak dira eta Gipuzkoan %24. Ehuneko biak estatuko batez bestekoaren azpitik daude, %33koa baita, eta hori batez ere, enpresa-sektorean duten presentzia txikiagatik.

I+GKO LURRALDEKAKO ADIERAZLEAK

	<u>Araba</u>	<u>Bizkaia</u>	<u>Gipuzkoa</u>	<u>Euskal AE</u>	<u>ESPAINIA</u>	<u>EUROPAR BATASUNA-15</u>
	2001	2001	2001	2001	2001	2000
I+G GASTUAK (%)						
BPGrekiko	1,40	1,49	1,54	1,49	0,96	1,93
I+G GASTUAK (%)						
FINANTZAKETAREN						
ARABERA						
Enpresak	70,7	63,3	67,7	66,0	47,2	55,5
Administrazioa	26,9	26,7	26,4	26,6	39,9	35,0
Bestelako iturriak	0,0	0,1	0,2	0,1	5,2	2,2
Atzerria	2,4	10,0	5,6	7,3	7,7	7,3
I+Gra DEKATUTAKO						
DOEko(*)						
PERTSONALA						
Pertsonala guztira	1.454	5.274	3.893	10.621	125.750	1.716.637
Ikertzaileak	705	3.102	2.002	5.809	80.081	919.318

(*) DOE: Dedikazio osoko ekibalentzia

Iturria: Euskal AE eta Lurralde Historiakoak: EUSTAT
Espainia: INE
Europar Batasuna: EUROSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz Tlf: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol Tlf: +34-945-01 75 48 Faxa: +34-945-01 75 01
---	---